

(5) Prestakuntza

Ikastaroa	Erakundea edo ikastetxea	Eskuratutako data

(6) Eskaerarekin batera aurkeztutako agiriak:

<input type="checkbox"/> Curriculum
<input type="checkbox"/> NAren kopia
<input type="checkbox"/> Titulu akademiko ofizialaren kopia
<input type="checkbox"/> Euskara titulua edo ziurtagiriaren kopia H.E. ____
<input type="checkbox"/> Gida baimenaren kopia
<input type="checkbox"/> Bestelakoak _____

Sinatzaileak eskaeran adierazitako izendapen libreko sistemaren bidez egingo den deialdian parte hartzeko onartua izatea **ESKATZEN DU**. Halaber, **AITORTZEN DU** bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela eta hitz ematen du behar bezala egiaztatuko dituela hala eskatzen diotenean.

ESKAERA ORRIA BETETZEKO ARAUAK

Eskaeran hutsegiterik eta datu okerrik izan ez dadin, eta zeure mesederako, IRAKURRI arretaz aukeratu duzun lanpostuaren OINARRIAK. Bete itzazu kontu handiz eskaera orri honetan eskatzen diren datu guztiak, eta jarrai itzazu zehatz-mehatz ondoren ematen zaizkizun jarraibideak.

- (1) **Norberaren datuak.-** Idatz itzazu letra handiz eta argi eta garbi ulertzeko moduan eskatzen zaizkizun datuak: NA, izen-abizenak, helbidea (kalea, herria, posta kodea eta probintzia), telefonoa, jaioteguna, gida baimen mota eta helbide elektronikoa.
- (2) **Deialdian parte hartzeko datuak.-** Bereiztu egin behar da:
 - **Jabetzan duzun lanpostua:** Zehaztu jabetzan duzun lanpostuaren sailkapen taldea, izena eta Herri Administrazioa.
 - **Gaur egungo lanpostua:** Zehaztu jabetzan duzun lanpostua betetzen ari zaren edo beste lanpostu bat. Azkeneko kasu honetan aipatu sailkapen taldea, atxikipen mota (Behin-behinekoa = ez duzu lanposturik jabetzan; Zerbitzualdia = lanpostu bat duzu jabetzan baina beste batean ari zara lanean), izena eta Herri Administrazioa.
- (3) **Deialdian betebeharrak gisa eskatutako eta izangaiak alegatutako beste eskakizunak:**
 - **Titulu akademiko ofiziala.-** Zehaztu zein titulu ofizial daukazu.
 - **Euskara:** zehaztu ziurtatutako hizkuntza eskakizunik daukazu (HE1, HE2, HE3, HE4 edo baliokideak). Ziurtagiririk ez baduzu jarri HE0.
- (4) **Esperientzia Herri Administrazioan.-** Zehaztu ezazu Herri Administrazioan lan egindako denboraldien hasiera eta bukaera data, betetako postua eta harreman mota (funtzionario, laboral, etab.).
- (5) **Prestakuntza.-** Aipatu itzazu egindako ikastaroak, erakundea edo ikastetxea eta eskuratze data zehaztuz.
- (6) **Eskaerarekin batera aurkeztutako agiriak.-** X batekin adieraz ezazu eskaerarekin batera aurkezten dituzun agiriak.

ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIAK

Eskaera orriak, behar bezala beteta, Kabia foru organismo autonomoko erregistro elektronikoan (www.kabia.eus) aurkeztuko dira, 2015ko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, Kabia Foru Organismo Autonomoak jakinarazten dizu eskuratzen dituen datuak langileen kudeaketa helburu duen fitxategian sartuko direla. Nahi izanez gero, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu ondorengo helbidera idatzizko eskaera bat bidaliz: Kabia, Foru Organismo Autonomoa, Zarategi pasealekua 100, 20015 Donostia; edo egoitza elektronikoaren bitartez <https://www.kabia.eus>.